

**EAE-KO GAZTE PLANAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAREN AKTA, Vitoria-Gasteiz, 2005eko ekainaren 20a.**

Partaideak:

- Miren Azkarate andrea, Kultura sailburua eta bileraren buru, Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendari Xabier Sánchez Robles jauna duela laguntzaile eta idazkari lanetan.
- Gurutz Larrañaga jauna, Kultura Sailaren ordezkaria.
- Mikel Burzako jauna, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren ordezkaria.
- Clara Izurieta andrea, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren ordezkaria (Lan Sailburuordetza).
- Koro Garmendia andrea, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ordezkaria.
- Rafael Cerdán jauna, Osasun Sailaren ordezkaria.
- Igor Irigoyen jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaria (Gizarte Gaietako Sailburuordetza).
- Jorge Garbisu jauna, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ordezkaria.
- Mikel Legarda jauna, Herrizaingo Sailaren ordezkaria.
- Abel Ariznabarreta jauna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkaria.
- Luis M^a Sautu jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- José Ignacio Insausti jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Angel García de Santiago jauna, Gasteizko Udalaren ordezkaria.
- Mikel Torres jauna, EUDELen ordezkaria.
- Alicia Suso andrea, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkaria.
- Gotzon Baraia-Etxaburu jauna eta Helena Ortiz de Lejarazu andrea, Kualitate Lantaldetik.
- Oro Ochoa de Eribe andrea (Eusko Jaurlaritzako Gazteriako burua), Bakarne Zuazua andrea, Fco. Javier Gutiérrez jauna, Jesús A. Pérez Arrospide jauna, Fernando Aguirre jauna eta Agurtzane Iriondo andrea (Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzako teknikariak).

Bileraren amaieran bertaratu ziren:

- Esther Larrañaga Galdos andrea, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Justizia Sailburuordetza).
- Arritxu Marañón andrea, Donostiako Udalaren ordezkaria.

Ezin etorria adierazi dute:

- Javier Burón jaunak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkariak (Etxebizitza Sailburuordetza).
- Joseba Mirena Zorrilla jaunak, EUDELen ordezkariak.
- Maider Otamendi andreak, EUDELen ordezkariak.
- Jon Iñaki Zarraga jaunak, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak.
- Jon Aritz Bengoetxea Donaire jaunak, Bilboko Udalaren ordezkariak.



10:15ean Miren Azkarate Zuzendaritza Batzordearen buruak saioari hasiera eman dio. Bertaratutakoak agurtu eta gero, gai zerrendaren lehenengo gaia lantzerantz igaro da.

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.

2004ko abenduaren 15eko Zuzendaritza Batzordearen bileraren aktari dagokionez, posta elektronikoz bilera honen aurretik bidali zenez gero, Kultura sailburuak uste du ez dela beharrezkoa momentuan jendaurrean irakurtzea. Horrela, bada, proposaturiko akta karpitetan erantsita aurkeztu da eta bere kontrako argudiorik dagoen galdetu du. Ez denez eragozpenik egon, akta ahobatez onartu da eta sailburuak gai zerrendaren bigarren gaiari heldu dio.

2. II. Gazte Planaren 2004ko Jarraipen Txostena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.

Kultura sailburu Miren Azkaratek Jarraipen Txostena aipatu du eta lau atal dituela adierazi du:

- II. Gazte Planaren koordinazio, sustapen eta garapenari buruzko jardueren zerrenda.
- Egindako ekintza positiboen kopurua, eta erakundeen eta arloen araberako gastua.
- Erakunde bakoitzak garatu dituen ekintza positiboen zerrenda eta horretan gauzatutako aurrekontua.
- Enplegu, hezkuntza, etxebizitza eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eta II. Gazte Planeko helburuen arteko osagarritasun-maila aztertzen duen txostena.

Kultura sailburuak esan du II. Gazte Planaren koordinaziorako mekanismoen artean Zuzendaritza Batzordea agertzen dela, Eusko Jaurlaritzarekin, Aldundiekin, udalekin, gizarte-eragileekin eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera. Gainera, Plana bultzatu eta garatzeko neurriak ere adierazten dira, neurri horien konpromisoa hartu baitzuen erakundeotako bakoitzak. Neurri horiek 2004an nola garatu diren aztertzerantz pasatu da.

Horri dagokionez, Zuzendaritza Batzordearen bi bilera aipatu ditu. Lehengoa ekainaren 23an burutu zen. Bertan 2003ko Ebaluaketa onartu zen. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailak Foru Aldundiekin batera prestatu zuen EAEko Gazteentzako Nekazaritza Plana aurkeztu zuen. Bigarren bilera abenduaren 15ean izan zen eta bertan II. Gazte Planaren Tarteko Ebaluazioa eta 2005eko Programazioa onartu ziren.



2004ko Legebiltzarreko agerraldiei dagokienez, Miren Azkaratek jakinarazi du berak, Zuzendaritza Batzordeko Lehendakari den aldetik, agerraldi bat egin zuela Eusko Legebiltzarreko Emakume eta Gazteria Batzordearen aurrean, maiatzaren 20an, 2002ko Ebaluazioa aurkezteko eta Gazte Planaren 2003ko garapenaren berri emateko.

Beste aldetik, 2004ko otsailaren 19an, Batzordeak hala eskatuta, Nekazaritza eta Arrantza sailburua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua eta Osasun sailburua azaldu ziren, sail bakoitzak II. Gazte Plana gauzatzekoan dituen erantzukizun eta jarduketan eta gazteriaren esparruan buruturiko bestelako jarduketan berri emateko.

Legebiltzarraren aurreko agerraldien berri eman ondoren, sailburuak Gazteen Euskal Behatokiak burututako ekintzak izan ditu hizpide. Bilboko egoitza 2004ko azaroaren 25ean inauguratu zen eta Behatokiaren jardun guztia egoitza berrira lekualdatu zen.

2004an 7 ikerketa abiarazi ziren:

- *Euskadiko gazteak 2004* (2004ko urrian argitaratua)
- *Gazte Planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua* (2004ko azaroan argitaratua)
- Etxebizitza-politikaren alternatibak Europako gazteentzat, txostena eta analisisa.
- *Euskal Gazte Lankideen bizi-ibilbideak*.
- *Gazteak eta indarkeria* txostena eta analisisa, EAE eta Espainiako Estatua.
- *Euskadiko gazteen joerak*
- *Euskadiko gazteen panoramika*.

Gazteen argazkiak sailaren 7. txostena ere plazaratu zen, 2004ko uztailan.

Estatistikaren esparruan gazteriaren adierazleen bateria definitu da. Estatistika-baseak ere sortu eta kudeatu dira. Horretarako, hainbat datu eskatu zaizkie Osasun Sailari, Herrizaingo Sailari eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, bai eta Eustati ere. Datu horiek web orrian sartu dira, beren zabalkunderako (biztanleria-datuei, egoera zibilari, ugalkortasunari eta migrazioei buruzkoak barne).

Gainera, Gazteukeran Behatokiaren web orria txertatu da: gaztebehatokia.euskadi.net. Bertan Behatokiaren argitalpen guztiak sartu dira.

Bestalde, dokumentazio-zentroaren liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean sartu da eta liburutegiak dituen 3.300 aleetatik 1.200 katalogatuta daude.



Formakuntzari dagokionez, 2004an Gazte Planaren ezaugarri eta nortasunari buruzko prestakuntza-modulua eman zaie Bizkaiko Foru Aldundiaren gazteria-koordinatzaileei zuzendua. Parte hartzeko heziketa kurtsoa ere eman da, EAEko gazteria-teknikariei zuzendua, Renée Jablkowskiren eta Miguel Leiviren eskutik (Partaidetzarako Heziketa Zentrokoak).

Behatokiak Autonomia Erkidegoetako Behatokiaren eta Europako Gazteriaren Behatokiaren arteko lanerako lehen jardunaldiak antolatu ditu.

Era berean, sailburuak Behatokiaren ikusizko nortasunaren eskuliburua prestatu dela adierazi du. Hori oinarri hartuta, triptikoetan, web orrian, argitalpenetan eta zabalkunderako materialetan erabiliko diren logo, ikono eta irudiak diseinatu dira.

Beste alde batetik, Gazte Plana herri-mailan garatzeko erronkari aurre egiteko, EAEn gazteentzako ekipamenduak eta udaletako gazteria-politikak berrindartzeko hainbat baliabide bideratu izan direla jakinarazi du sailburuak.

Horretarako, 2004an dagozkion lankidetzeta-hitzarmenak sinatu dira Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko zein Gipuzkoako Foru Aldundien artean.

Horren haritik, sailburuak 2004an Lurralde bakoitzean erantzun diren eskariak zehaztu ditu, bai Plana Aldundi bakoitzaren barruan sustatzeko, bai herri-mailako planak landu eta garatzeko, bai Euskadiko gazteentzako ekipamenduen sarea bultzatzeko.

Miren Azkaratek gogorarazi du hitzarmen bakoitzaren jarraipena egiteko Eusko Jaurlaritzak eta Aldundi bakoitzaren arteko Bitariko Batzordea dagoela eraturik.

Arabako Lurraldeari dagokionez, azaroaren 16an Eusko Jaurlaritzak eta Aldundia Akordio batera heldu ziren. Akordio horren bitartez, 2003ko maiatzaren 5ean sinatutako Hitzarmena indarrean mantendu eta hasiera batean adostutako aportazio ekonomikoak agortu zirenez gero, bi erakunde horietako bakoitzak bere aportazio erabilgarri osoa zuzentzeko asmoz, Arabako Foru Aldundiak bere aportazio ekonomiko propioaz erantzuten ditu udaletako eta tokian-tokiko erakundeen laguntza-eskaerak gazteriaren esparruan burutu beharreko ekintzetarako. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, Arabako Lurraldeko Koadrilen eskaerak zuzenean atenditzen ditu Arabari egokitutako 180.000 euroekin. Modu honetan, koadrila bakoitzak gazteriaren arloko zeharkako politiken plan integrala landu ahal izango du eta, beste aldetik, gazteentzako ekipamenduen sarea indartu ahal izango du.

Horrela, bada, Arabako Foru Aldundiaren laguntza jaso izan duten udalak zerrendatu ditu, gazteentzako ekintza positiboak burutzeko dirulaguntza, alegia.



Eusko Jaurlaritzaren aportazioaren kargu, Gazte Plana egin gabe izan duten Arabako sei Koadrilatan eskualdeko Gazte Planen lehenengo fasea landu izan da, hau da, Vitoria-Gasteiz izan ezik, gainontzeko guztietan egin izan da. Izan ere, Vitoria-Gasteizek 2003an jaso zuen honetarako laguntza.

Horrela, Arabako Koadrila bakoitzak badu, alde batetik, diagnostikoa, tokian-tokiko gazteriaren beharrian nagusienekin eta, beste aldetik, koadrila bakoitzak eta berari dagozkion udalek gazteriari zuzendu dizkieten errekurtsoko guztien diagnostikoa. Horri guztiari esker, 2005ean Koadrila bakoitzak bi diagnostiko horiek konparatu ahal izan ditu, ebazteko zeintzuk diren atenditu beharreko lehentasunak bere Gazte Plan propioa landuz.

Beste aldetik, gazteentzako ekipamenduen sareari dagokionez, Eusko Jaurlaritzatik Arabako udaletako eskaerak ere atenditu izan ditu zentzu honetan.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, bere konpromisoak bete ditu, Jaurlaritzaren Kontseiluan 2002ko ebaluazioa eta 2004rako programazioa onartu baititu, Gainera, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin zituen hitzarmenen finantzazioa onartu du, tokian-tokiko gazte planak bultzatzeko, bai eta Arabako Koadrilentzako aparteko dirulaguntzak ere.

Bestalde, Gazte Plana beste plan batzuekin koordinatzeari ere ekin zaio, Gazte Planaren Idazkaritzak eta Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzak honako organo eta planetan parte hartu duenez gero:

- Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseilua.
- Boluntarioraren Euskal Kontseilua.
- Drogamenpekotasunen Bosturteko Plana eta Droga Menpekotasunen Aholku Kontseilua.
- Euskal Estatistika Plana.
- Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Plana.
- Pertsona ezgaituak EAEko lan-merkatuan gizarteratzeko Plana.
- Inmigrazioari buruzko Euskal Plana.

2004an Mahai Sektorialek burututako lana ere azpimarratu du Miren Azkaratek: Bakearen Hezkuntza (Giza Eskubideen Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza) eta Osasunaren hezkuntza eta Drogamenpekotasunak (Osasun Publikorako Zuzendaritza, Droga Gaietako Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza).

Azkenik, Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren barruan, eta Administrazioa Eraberritzeko Bulegoarekin elkarlanean, gazteukera web orriaren sustapenari jarraipena eman zaio, bereziki Gazte Txartelak bultzaturiko sari eta lehiaketan bidez.



Era berean, sailburuak jakinarazi du 2004ko auzolandegietarako aurreinskripzioa Gazteaukeraren bidez burutu dela, bai eta Kulturako Lurralde Unitateetan izena emateko aurretiazko zitaren kontsulta ere. Beraz, programa hauetan interesatuta dauden gazteek errazago eskuratu ahal izan dute informazioa, bai eta Administrazioarekiko harremana ere.

Eusko Jaurlaritzak garatutako jarduketa hauei Foru Aldundiek eta Udalek burututako eginkizunak gehitu behar zaizkie. Alderdi horretatik, eta Bizkaiko Lurraldeari dagokionez, Bizkaiko Gazte Planako Batzordea hiru aldiz bildu da: martxoaren 8an (2003ko ekitaldia eta gazteria politikari dagozkion dokumentu deskriptiboak ontzat emateko); ekainaren 30ean (2004ko ekintzak zer heinetan bete diren balioesteko); eta urriaren 29an (2005eko Foru Programazioa aurkezteko).

Gaztedi Foroari dagokionez, bertako Batzorde Artekariaren eta Batzorde Betearazlearen lana azpimarratu beharra dago, batez ere udal teknikarientzat *I. Gazte Topaketak Bizkaia* antolatu izanagatik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordea, *Gazteriaren Foru Batzordea* sortu du, departamentuen arteko programak garatzeko eta Euskadiko II. Gazte Plana burutzerakoan Gipuzkoako Foru Aldundiari dagozkion ekintzak koordinatu, bultzatu eta kontrolatzeko.

Arabako Foru Aldundiak, aldiz, martxoaren 9an *II. Gazte Plana Araban garatzeko diagnostikoa* aurkeztu zuen. Txostena 2003an prestatu zen, Eusko Jaurlaritzarekin sinatu duen hitzarmenaren ondorioz.

Azkenik, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Gazte Planaren segimendu lanekin jarraitzeaz gain —Zuzendaritza Batzordearen, Batzorde Teknikoaren eta Gazte Ontziak ekimenaren bidez—, II. Gazte Planean dauden Kontseiluaren ekintza propioak programatu, ebaluatu eta burutzeko prozesuan sartu da.

Txostenaren bigarren atalak ebaluazio kuantitatiboa biltzen du, edo 2004. urtean Erakunde bakoitzak garatu dituen ekintza positiboak zer heinetan bete izan diren. Horren harira, Miren Azkaratek erakunde bakoitzak II. Gazte Planeko esparruetako bakoitzean erabili duen gastua erakutsi du. Donostia-San Sebastiango Udala ez da datuotan ageri, ez baitu ebaluazio daturik bildu.

Era berean, bada gauzaturiko ekintza guztiei dagozkien ebaluazio-datu guztiak aurkeztu ez dituen erakunderik ere.

Laburbilduz, 453 ekintza positibo gauzatu dira. Gastua, guztira, 169.526.461,86 eurokoa izan da, Donostia-San Sebastiango Udalak egin duen gastua kontuan hartu gabe, zenbatekoa ez baita ezagutzen.



Aipatzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak, beste bi Aldundiek ez bezala, etxebizitzaren esparruan sartu dituela 35 urtera arteko 40.720 gazterengandik jaso ez den dirua (kenkariak direla-eta: alogeragatik, ohiko etxebizitzarako inbertsioagatik, ondare-eskualdaketaren zergagatik), 17.410.808 euro guztira.

Momentu honetan sailburuak azpimarratu du gazteek bost esparruetako bakoitzean (enpleguan, hezkuntzan, etxebizitzan, osasunean eta kulturean) dituzten beharriari erantzuteko ahaleginak finkatuz eta areagotuz doazela urtean-urtean. Arreta berezia izaten ari da II. Gazte Planak besteekiko zeharkako bezala definitzen duen esparru batek: balioak eta indarkeria izenekoak, alegia. Esparru horretarako 4.351.863,66 euro erabili dira eta, are garrantzitsuago dena, 2004an 53 ekintza gauzatu dira. Horrek esan nahi du aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ekintza-kopurua eta inbertsioa bikoiztu egin direla.

Ildo horretatik, Miren Azkaratek esan du oso garrantzizkoa dela ekintzak gauzatzeko egin den aurrerapausua eta ahalegina. Izan ere, 2003an 374 ekintza positibo burutu ziren eta 2004an 453, beraz, 79 ekintza gehiago egon dira urte batetik bestera. Ekintza horien artean lehengo agertzen dira Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak buruturikoak.

Halaber, ekintzen gehikuntzarekin batera, buruturiko gastua ere areagotu da: 2004an 46.373.119,17 euro gehiago erabili dira aurreko urteetan baino (123.153.342,69 eta 169.526.461,86 euro, hurrenez hurren).

Sailburuaren iritziz, aurkeztu duen datu zerrenda egindako lanarekin hein batean pozik egoteko modukoa da, eta abagunea aprobetxatu du emaitza horiek lortzeko egin den ahalegina bertaratuei eskertzeko.

Azalpenaren ondotik, sailburuak hitza eman die bertaratuei, aurkezturiko txostenaren gainean iritziren bat eman dezaten, hala nahi izanez gero. Bertaratutako inork ez du parte hartu nahi izan eta, horrenbestez, onartutzat hartu da Gazte Planaren 2004ko jarraipen txostena.

Sailburuak gogorarazi du beste batzuetan bezala, 15 egunetako epea utziko dela dokumentua ixteko, akatsen bat zuzentzeko edo, eta epe hori pasatu eta gero, 2004ko ekitaldiari dagokion Gazte Planaren garapenaren Txostena onartutzat joko da

Jarraian gai zerrendaren hurrengo gaiari heldu dio.

3. Enplegu, hezkuntza, etxebizitza eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eta gazteria politiken arteko osagarritasun-maila baloratzeko 2004ko txostena onartzea, hala badagokio.



Sailburuak dokumentuaren hirugarren atala erakutsi du (Jaurlearitzaren Kontseiluaren 2002ko maiatzaren 28ko Akordioari lotua, EAEko II. Gazte Plana onartu zuen Akordioari, alegia), enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politikek eta Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak prestatuturiko gazteria-politikak duten osagarritasun-mailari buruzko balorazioa dakarrena, bai eta politika horiek II. Gazte Planean zehazturiko helburuekin duten koordinazio-mailari buruzkoa ere.

Honako puntu hauek har daitezke ondorio orokor gisa:

- Lehenik eta behin, azpimarratu behar da politika sektorial horien eta Gazte Planaren arteko osagarritasun-maila egokia dela. Izan ere, hainbatetan adierazi den bezala, Gazte Planaren bertute handienetako bat da gazteriaren beharrezko diagnostiko adostu eta zabalean oinarritzen dela. Beraz, sektorekako beste esku-hartzeetako analisiekin bat dator.
- Bigarren, nahitaezkoa da gazteria-politika zeharkako bilakatzen jarraitzea.
- Azkenik, ezinbestekoa da baita sailen arteko koordinazioa indartzen jarraitzea.

Miren Azkaratek Zuzendaritza Batzordeak ezarri dituen hobekuntza neurriak gogorarazi ditu:

- *Mahai sektorialak sortzea*
- *Beste planekiko koordinazioa*
- *Programazio-Ebaluazio deszentralizatua*
- *Gazteentzako baliabide-gida*
- *Informazio estatistikoa trukitzea*

Puntu honi dagokion azalpena amaitu du eta norbaitek parte hartu nahi duen galdetu du. Ez denez ekarpenik egon, Enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politikek eta gazteria-politikak izan duten osagarritasun-mailari buruzko 2004ko Txostena onartu da eta gaien zerrendaren hurrengo puntuari ekin dio sailburuak.

4. Programazio eta ebaluazio deszentralizatua.

Sailburuak, hasteko, gogorarazi du II. Gazte Planak, I. Gazte Planarekin alderatuta, suposatu duen aurrerapausoetako bat erakunde bakoitzak programazio eta ebaluazio deszentralizatua burutzean datzala, aldetik, Zuzendaritza Batzordeari eta bere Idazkaritzari egokitutako koordinazio-lanak gora-behera.

Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak eta Batzorde Teknikoak *Gazte Planak eta programak programatzeko eta balioztatzeako eskuliburua (EAEko Gazte*



Planaren eredua) prestatu eta adostu zuten. Eskuliburu horretan sail bakoitzak gazteriari zuzentzen dizkion politikak deskribatu zein programatzeko dokumentua prestatzeko jarraibideak azaltzen dira.

Miren Azkaratek gogorarazi du Zuzendaritza Batzordearen azken bileran programaziorako dokumentu horiek berrikusi edo osatzea adostu zela, SIIS kanpoko aholkulariaren orientabideak oinarri hartuta. Orientabide horiek dokumentu bakoitza Eskuliburuan bildutako atalen analisiaren arabera berrikusi ondoren prestatu dira:

- Esparru teorikoa (interbentzioak kokatzeko oinarrizko irizpideak).
- Erantzukizunak esleitzea.
- Gazteriak eskumenen arloan duen egoerari buruzko diagnostikoa (arazoak eta beharrizanak antzematea eta baloratzea).
- Gazteria politikaren helburuak sailean-sailean finkatzea.
- Helburuok lortzeko abian jarri beharreko ekintza edo programak, Gazte Planekoak eta beste barne, bakoitzak bere aurrekontua duela.
- Gazteria politikaren jarraipen eta ebaluazio sistema.

Hortaz, Gazte Planaren Idazkaritzak sail bakoitzari SIISek emandako orientabideak helarazi dizkio. Material guztia bertaratuei karpitetan banatu zaizkien dokumentuen artean aurkitzen zen “Documento programático de la política de juventud de la CAV 2002-2005” izeneko dokumentuan bildu da, aldaketak egiteko bidea emateko dokumentua zabaldu aurretik.

Miren Azkaratek hiru alderdi azpimarratu nahi izan ditu dokumentuaren prestakuntza-prozesuari eta edukiari buruz:

- Lehenik eta behin, aintzatetsi eta eskertu egin du bertaratuek eta Batzorde Teknikoko kideek egindako ahalegina eta esker ona teknikariei ere helaraztea eskatu du.
- Bigarrenik, bere ustez guztiok elkar zoriondu beharko lukete, II. Gazte Plana onartzerakoan hartu ziren konpromiso guztiak betetzen eta erronka guztiak zorrotz-zorrotz gainditzen ari direlako. Plana aurkezterakoan hainbat aldiz esan zen Plana oso ambiziosoa zela. Beraz, bere esanetan, gogobetetzea bikoitza izan behar da, orain dela urte gutxi batzuk ia ezinezkotzat jotzen ziren gauzak lortu baitira.
- Hirugarrenik, programazio agiria neurri egokian baloratu behar da. Lehen aldia da gazteen beharrizan eta eskariei erantzuteko sail bakoitzak duen jarrera politikoa —bere eskumenak kontuan hartuta— laburbildu dena.

Hori dela eta, sailburuak espero du dokumentu horretan bilduta ez dauden beste euskal erakundeak datozen urteotan sartuz joatea.



Puntu honekin amaitzeko, 2005eko Programazioaren behin betiko dokumentua ere banatu dela jakinarazi du sailburuak. Dokumentuan epearen barruan jasotako aldaketak sartuta daude, aurreko bileran adostuta gelditu zen bezala.

2005erako programaturiko ekintzei dagokienez, sailburuak Gazteen Euskal Behatokiari buruzko informazioarekin jarraitu du. 2005. urtean formakuntzalanari eutsi dio: lau ikastaro berri garatu ditu, denak ere teknikariei eta gazteriaren esparruko agenteei zuzenduak:

- *Gazteen aisialdian arriskuei aurrea hartzea,*
- *Europako gazteria politikak,*
- *Parte hartzeko heziketa* ikastaroa, bi modulutan banatua.

Behatokiak Emakundek sustatutako NARO Berdintasunerako Gunean ere parte hartu du, Europako gazteria politikak generoaren perspektibatik aztertzen zituen hitzaldi bat antolatuta.

Halaber, Europako gazteentzako etxebizitzari buruzko ikerketen argitalpenaren berri ere eman da. Argitalpena bai euskaraz, bai gaztelaniaz plazaratuko da: *Gazteen aukerak etxebizitza eskuratzeko: Euskadi Europako testuinguruan.*

Euskal gazte lankideen bizi-ibilbideak izenekoa ere laster kaleratuko da, gazte lankideei dedikatua. Argitalpena eskuragarri izatean, helaraziko dizuegu ale bat, argitaratu bada ere, aurkeztu eta banatu gabe dago oraingoz eta. Beste aldetik, dagoeneko *Gazteak eta Informazioaren Teknologia Nazio Batuen esparruan izeneko* argitalpena ere sustatu eta hedatu du.

Azkenik, sailburuak jakinarazi du Behatokiak bi bekarako deialdia ere egin duela. Bekak ikertzaile gazteei zuzenduta daude, Euskadi II. Gazte Planean biltzen diren gaiei buruz ikerketak burutzeko. Beken agindua eta deialdiaren arauak uztailaren 4ko EHAAren argitaratu dira.

Behatokiak egindako jarduerak zehaztu eta gero, sailburuak Planaren koordinatu, bultzatu eta garatzeko mekanismoez aritu da. Egiteke geratu zen erakunde arteko ekintza bat zen 5.2.4 zenbakia duena: “Gazteen ekipamenduak aztertzea, haien tipologia definitzeko, plan bat garatzeko eta parte-hartze soziala duten kudeaketa ereduak diseinatzeko”.

Horretarako, lehenengo fasean Erakundearteko Batzorde Tekniko bat sortu dela adierazi du Miren Azkaratek, Gazte Planean identifikatutako erakundeen ordezkariak osatua. Batzordearen helburua da gazte-ekipamenduen definizioa eta sailkapena lantzea.

Une honetan Batzordea lehenengo zereginarekin bukatzen ari da, alegia, dagokion definizioa eta sailkapena finkatzea, horrekin landa-lanari berme batekin ekiteko. Gero, definizio eta sailkapen horiek benetako ekipamenduek



erakusten dutenarekin erkatuko dira eta etorkizunean sor daitezkeen behar eta proposamenak bilduko dira.

Beste alde batetik, sailburuak jakinarazi du Gazte Planen inguruan hainbat datu-base daudenez, erakunde batzuek eta batez ere politika integraletara eta zeharkakoetara egokitzen ari diren udal batzuek arazo batekin egin dute topo: datu-base horien ugaritasuna. Horrek ahaleginak alferrik bikoiztea ekartzen du eta, kasu bakarren batean baita ere datuen migrazioa bateraezina gertatzea.

Hori dela eta, Bizkaian batez ere egindako lanaz baliatuz (Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bertako udalekin izandako harremanen ondorioz), base guztietako datuak bateratzeari ekingo zaio, datu-base bakar batean biltzeko eta, gainera, on line kontsultatzeko eta eguneratzeko moduan jartzeko.

Horretarako, geroko datu-base horri ahalik eta etekin oparoena ateratzeko, beharrezkoak diren harreman guztiak landuko ditu Gazte Planeko Idazkaritzak.

Sailburuak, bere partaidetza amaitu eta gero, bertaratuei parte hartzeko gonbita egin die. Horrela, galdera-eskeen txandara igaro da.

Ekarpenik egon ez denez, sailburuak bilerara joan izana eta egindako lana eskertuta agurtu ditu bertaratu direnak.

Lantzeko gai gehiagorik ezean, bilera amaitutzat jo da.